

Gaitz sendaezina

artxiboa iz 1 dagoeneko jazo diren gertakariak erregistratzen dituzten dokumentuen bilduma 2 Kontakizun nagusiek berezkoa duten elementua, osotasuna eta unibertsaltasuna izan nahi dituen, baina izaeraz ez-oso eta partziala dena 3 Hausturak sortzen ditu existentzia osotasun etengabea eta gorabeherarik gabea dela ulertzeko joeran 4 Izaera funtzionala du: iraganaren artxiboa orainari eta etorkizunari zentzua emateko erabiltzen da 5 Bere baitatik kanpora ez da ia ezer geratzen, eta omnipresentea da iruditeria kolektiboan.

Artxibo hitzak, hortaz, adiera asko ditu.

Ondoren, artxiboaren gaitza analizatzen saiatuko gara, hiru adiera aztertuta.

DOKUMENTUA GEHIEGIKERIA GISA

Horretan kontsentsua dago: mundua leku zaila da. Gauzak azkar aldatzen dira, batzuk besteen gainean metatzen dira abiadura handian, eta horrek zalantzak sortu eta mundua zailtzen du. Egoera horretan, artxiboa erresistentzia modu bat da, etengabeko aldaketa eta metatze dinamika horren aurrean.

Alferrikako erresistentzia da, ordea. Izan ere, dokumentuen erregistrotik ezerk ere ihes egiten ez duen honetan, lortzen al du, bada, artxiboak gauzak aldatzeko abiadura hori mantsotzerik? Ez. Lortzen al du, bederen, gehiegiakeria eta pilaketa gutxitzea? Ezta. Artxiboaren eginkizuna berez zentzua eta ordena jartzea den arren, artxiboa sortzean zarata eta kondar gehiago eransten dizkiogu hasierako gehiegiakeriari.

Corbis Corporation enpresa Bill Gates-ena da, eta artelanen erreprodukzio digitalizatuak saltzen ditu sarean. Irudi horien kopia originalak, ia birurogeita hamar milioi, antzinako meategi batzuetan biltegiatuta dauzkate. Ez da ezagutzen gordailu horien barruko argazkirik, baina Pittsburg-eko kanpoaldeko arkeologia industrialeko paisaiaren zati dira.

Meategi abandonatu baten leizea, irudien bilerrri biburtua. Irudi ikusigabe hori dokumentu kondarraren metafora da. Badu, baita ere, beste esanabi ez horren metaforikoa: sistema kapitalistaren logikak zein mugataraino garamatzen erakusten digu, muga absurdu baina errentagarrietara iristen baita kapitalismoa, den-dena, kondarra barne, kontsumogai biburtzeko duen grinarekin.



ARTXIBOAREN EGINKIZUNA

BEREZ ZENTZUA ETA

ORDENA JARTZEA DEN

ARREN, ARTXIBOA

SORTZEAN ZARATA ETA

KONDAR GEHIAGO

ERANSTEN DIZKIOGU

HASIERAKO GEHIEGIKERIARI.

Joseph Beuys *Dürer; ich führe persönlich Baader + Meinhof durch die Dokumenta V* 1972
Leihgeber Sammlung Speck, Köln



Eskorbuto Videoclip *Antes en las guerras* 1984 · Creativideo Produktora

DOKUMENTUA FETITXE GISA

Artxiboa fetitxista da zentzu batean, desiratutako gauzen ordezkoak gordetzen baititu bere baitan. Zentzu horretan, beraz, dokumentua zera da beti: iraganeko unearen ordez gordetako uzten dugun objektua. Artearen alorrean, gainera, dokumentuak beste fetitxizazio maila bat hartzen du. Artelanaren beraren ordez agertzen denekoa. Berrogei urteko praktika artistiko anitz eta desberdinak (prozesualak, ez objektualak, kontzeptualak...) igaro ondoren, dokumentua testuinguru artistikoan naturalizatu dela esan daiteke.

Transferentzia hori, ordea, bi noranzkotan gertatzen da: dokumentua objektu artistiko baten ordezkoa izateaz gainera objektu artistiko “izan badaiteke”, objektu artistikoa beti “da” dokumentu bat. Ildo hori jarraituz, adibidez, diktadura frankistari buruzko erakusketa historiko batean zilegi izango da Francoren zaldizko estatua bat agertzea, balio estetiko handia nahiz txikia izan. Kasu horretan, dokumentuak eta artelanak parekatuta daude, distantzia atzera begirakoaren ondorioz. Baina zer gertatzen da dokumentuak eta artelanak arte garaikideko espazio batera biltzen direnean, eta hor alderdi estetiko nagusi denean? Bada, parekatze hori beste nonbaitetik etorriko dela. Balio estetiko berezkoa dute artelanek, baina espazio artistiko batean dokumentu bati balio estetiko aitortzen diona eta haren estatusa aldatzen duena, azken batean, komisarioaren erabaki denotatiboa —eta, batzuetan, harroa— da.

Berlinen, 2005eko urtarriletik maiatzera bitartean erakusketa berezi bat izan da: “Izuaren errepresentazioa: Red Army Faction taldearen erakusketa”. Berrogeita hamabi artistaren lanak bildu ditu erakusketa honek. Nabita egindako salbuespenen bat izan ezik, dokumentuen arloa eta erakusketaren arloa ongi bereizita egon dira.

Bebean, dokumentazioaren esparruan, kriptatutako itxurako gela ilun samar batean, Alemaniatik kanpo argitaratutako materialak daude. Paretan Andreas Baader eta Gudrun Ensslin-en hiruzpalau argazki daude, zuri-beltzean. Hirurogeiko hamar-kadaren amaiera aldekoak dira, Parisen erbestera-turik egon zirenekoak. Gazte eta lasai ageri dira. Kamerari begira irri-barrez ari dira, Pariseko kafetegi ispiluz bete batean. Gauloises erretzen ari dira, Campari-ren hautsontzi baten ondoan duten pakete batetik.

Erakusketa esparruko azkeneko solairuan, Johan Grimont-prez-en DIAL HISTORY proiektatzen ari den bitartean, monitore batean Jean-Luc Godard-en A bout de soufflé filma ikus daiteke. Irudietan Belmondo eta Seberg ageri dira, obean etzanda, bizketan ari diren bitartean zigarroak erre eta erre. Gazteak dira, ederrak, basatiak, eta estiloa darie. A bout de soufflé zen, hain zuzen ere, Andreas Baader-en film gustukoena.

DOKUMENTUA NOSTALGIA GISA

Artxiboa fetitxista da. Baita nostalgikoa ere. Izan ere, ez dagoen objektua desiratzeaz gain, artxiboak arrazoia nahi du, desira horren arrazoi galduta.

2004ko urri eta abendu artean, *Beste Bat!* aurkeztu zen Rekalde aretoko sarrera gunean. Proiektu hori Arturo F. Rodríguezek eta biok komisionatu genuen eta artxibo modura aurkeztu zen, *euskal rock erradikalaren* dokumentuekin. 77ko punkari jarraiki sortu zen euskal rock erradikala, eta 80ko hamarkadan izan zuen zabalkunde gorena, hamarkada asaldatuaren sintoma eta katalizataile izan zelarik; etsipena, heroina, hiesa, industriaren gainbehera, langabezia, ETA gogortzea eta GAL agertzea izan ziren garai horretako ezau-garri nagusiak.

Artxiboko materialarekin erakusketak egiteak arrisku asko dakartza berekin (gai antolatze antzua, totalitarismo didaktizista, mistifikazio arbitrarioa...). Baina, zalantzarik gabe, guztien biografia pertsonaletatik hain gertuko gaiei heltzen zien proiektuaren gainean hausnartzen zuen mamurik handiena nostalgia zen. Norbaitek erakusketako ohar liburuan idatzi zuen bezala, Eskorbutok bere ohiko argitasun nihilistarekin honakoa esan zuen: "... iragana da/eta horren alde ez da deus egin behar/orainak porrot egin du/eta geroa ez da ikusten", eta iragan horren mitifikazioan ez genuen erori nahi.

Halaz ere, *Beste Bat!*-en ezkutuko agendak zerikusia handia zuen nostalgia irrikarekin. Lasaitze aldera, irrika hori fantasmen exorzismentotik gertuago zegoela esaten genuen, norbere ospakizun atseginetik baino. Izan ere, helburuetako bat zen garai haien eta gaurkoen arteko lerroa jarraitua ez zela ikustea, "hogeit urte ez dira ezer" esaera gezurtatzea. Teorian, ariketa horrek lagunduko liguke desiraren arrazoia ikusten, behin gauzak konponbiderik gabe aldatuta daudenean galtzen den arrazoia. Artxiboaren metodologia, "gure jarraitasunak oztopatzen dizkiguna", izango litzateke egokiena. Edozelan ere, ezinezkoa da nostalgiami ihes egitea.

Etenaldi horiek eta guztiok genuen jarrera anibalentea gero eta nabarmenagoak ziren mahai-inguruetan, kontzertuetan edo ohar liburuko idatzietan. "Asko botatzen dut faltan" -, Rekalde aretora sartu gaituztenetik momia bat bezala sentitzen naiz (sua Rekalde aretoari!).

Azken azalpen hori ulertzekoa da. *Euskal rock erradikala* Rekalde aretoan sartzea — Guggenheimetik oinez minutu gutxira eta 80ko hamarkadan rock horrek arrakasta itzela izan zuen taberna eta gaztetxeetatik orduetako distantzia mentalera dago Rekalde aretoa—, haren heriotza akta sinatzea baino gehiago izan zen. Abandoko ingurune burgesean, fenome-noaren asaldura behin betiko, bai, baltsamotu egiten zen.

Hala, erakustaretoa bera eta errepresentazio sistema gaiaren islatzaileak eta desaktibatzaileak izan ziren, eta etendurak guk uste baino gehiago nabarmendu ziren.

Eguerdiko hamabiak. Rekalde aretoak hiriko etorbide nagusietako batera ematen du beirate handi batez, hiriko kale nagusietako batean. Beirate horrek ispilu barremana sortzen du barrukoaren eta kanpokoaren artean. Alde batean, zenbait gazte pantailako fanzineei eta bideoei begira daude. Beste aldean, protesta batek kalea itxi du.

GUZTIEN BIOGRAFIA PERTSONALETATIK**HAIN GERTUKO GAIEI HELTZEN****ZIEN PROIEKTUAREN GAINEN HAUS-****NARTZEN ZUEN MAMURIK HANDIENA****NOSTALGIA ZEN.**

Manifestazioan daudenek beirateari bizkarra ematen diote. Haien baserreen xedea aurreko eraikinean dago, PSOEn egoitzan. Adin ertaineko ebunka gizon, lan-jantziak dituztenak, paskinak banatzen ari dira eta lemak batera esaten. La Naval-eko langileak dira, itxuraz berehala itxiko duten Euskal Herriko azken ontziola handikoak.

Barruan, pantailako bideo batek duela hogeit urte beste Euskal Herriko ontziola handia, Euskalduna, itxi zuteneko protestak gogora ekarri ditu. Itxiera bura, orduan ere gobernu sozialistak agindutakoa, industria eraitsi zen garaian euskal gizartearen borroka eta protesta solidarioaren ikur bilakatu zen.

Beiraren beste aldean gertatzen ari dena, ordea, nabiz eta berpizteko hainbat eta hainbat satakerak instituzional egin, beste gauza bat da. Historia antzekoa da, baina egoera desberdina. Duela hogeit urte (La Naval-eko langileei solidarioak ez izatea leporatu zitzaizenean), protesta jendetsua egin zen. Orain beste garai batean gaude: alde batetik deslokalizazio ekonomikoaren garaian gaude, baina, bestetik, oparaldia, banakotasuna eta aukera ugaritasuna bizi ditugu bertan. Bien bitartean, babesik gabe sentitzen gara gehienok, historia kolektiboaren zentzua eta zorigaitzarena galdu ditugulako babesik gabe. Baina, hala ere, "iraganari eusteko dugun indarra oso gogorra da, eta batzuetan zaila da ulertzea zergatik lehen funtzionatzen zuten gauza haiek orain ez dabilen." ❧

MIREN JAIO Artearen Historiako kritikoa eta irakaslea da. Bilbon bizi da.

OHARRAK ETA ERREFERENTZIAK

- 1 ZIZEK, S. *El frágil absoluto*. Valencia : Pre-textos, 2002. (En la melancolía nos encontramos con el "objeto del deseo privado de su causa").
- 2 ESKORBUTO Cerebros destruidos, Anti-todo, Discos Suicidas, Getxo, 1986.
- 3 GARDEL, C. y LE PERA, A. *Volver*, 1935.
- 4 FOUCAULT, M. *The Archaeology of Knowledge*, London : Tavistock Publications, 1982.
- 5 Ohar liburua. Rekalde aretoa. Bilbo, 2004.
- 6 MENAND, L. *American Studies*, New York City, NY : Farrar, Straus & Giroux, 2002.